

# BURUNTZALDEA IKT

## 2017/2018 DENBORALDIA

Aurreko denboraldietako ekintza eta jardueri begira, sorreratik hona gure taldeak izandako garapena gogoan hartzea beharrezkoa dela ikusten dugu herrian egindako lana ulertu ahal izateko.

Alde batetik, bere sorrerako lehen urteetan 45-50 igerilari eskas izatetik 150 igerilari inguruko talde bat izatera pasatu da gure taldea eta bere horretan mantendu da gainera azken lauzpabost urteetan. Horren oinarrian, zalantzarik gabe, gure taldeak igeriketa ezagutarazteko eta promozionatzeko egindako lana dago eta baita kirolari berari dagokionean, ezagutzan, irakaskuntza ahalmenean eta entrenamenduko ezagutzan emandako aldaketa eta aurrera pausoa.

Horrek guztiak gure taldea gure herrian bakarrik ez, Gipuzkoa, Euskal Herria eta baita Estatu mailan ere, talde ezagun eta kontutan izateko taldea izatera eraman du gure elkarteak.

Kontextu horretan, ehundaka izan dira gure taldetik pasa diren haur eta gazteak, hasera batean igeriketaren oinarriak ezagutu eta lantzeko eta gerora nork bere bidea egiteko, dela kirol errendimendua edo dela kirol praktika hutsa. Gure taldetik pasatako haur eta gazte horien partaidetzaren ideia horretatik eratorri da gaur egun gure elkarteak darabilen leloa:

*...herria iturri, ehundaka igerilarik sortutako olatua...*



**G**uzti hau, lasterketa igeriketaren alorrean gertatu da, baina gure taldeak igeriketa arruntaren formatu hutsetik aurrera egiteko beharra ulertzeko gaitasuna izan du eta ikuspuntu horretatik abiatuta 2012/2013 denboraldian Master atala eta Estiloak atala abiatu zituen. Biak gaur egun ere sasoi betean dauden atalak dira non lehenengoan adinez nagusiekin igeriketa, ur irekietako igeriketa, triatloia eta osasun-kirola lantzen diren eta bigarrenen haur eta gazteekin igeriketaren erabilpen praktikoago bat bultzatzen den, bai kirol praktika sustatzeko bai partehartzaile hauen taldeko kategoria arruntetan txertatu ahal izateko.

**Los nadadores de BURUNTZALDEA IKT han sido protagonistas en la Gala 2017/2018. Han logrado 9 medallas (8 en individuales y 1 en equipo). Merced al trabajo desarrollado en temporadas anteriores, hoy, con nuevos bríos, recogen los éxitos**

Idea honekin azken bi denboraldi hauetan ere, oraindik ere aurrera egitea lortu ez badu ere, urpoloaren inguruan lana egin du gure taldeak, herriko elkarrekin topaketak burutuz, udako igerilekuetan kirol promozionatuz eta ate irekiak ere eskainiz. Urpoloarekin batera, igeriketa artistikoa eta kirol sorospenaren aukerak zabalik ditu taldeak, nahiz eta atal berriak zabalitzeak denbora eta lan gehiago eskatzen duen. Horretan jarraituko du.

Igeriketa tradizionalari dagokionez, bere kirol praktikaren mailan etengabe hobera egin du gure taldeak, bere sorreran juxtu-juxtu parte-hartze alorreko lehiaketatan ariztetik hasi eta azken denboraldian bi taldekide Selekzioekin aritzerako bidea eginez. Bide horretan, gure igerilariak pixkanaka Gipuzkoako Txapelketatan hasi, gerora Euskal Herriko Txapelketatan eta hortik Espainiako Txapelketara saltoa eginez garatu dira, azken urteetan azken maila honetako kategoria guztietan urtero ordezkariak izan ditugarik. Zentzu honetan, ibilbide eta garapen honetan lagundu duten Mikel Esnali eta Haitz Mitxelenari merezitako omenalditxoak egin genien Lasarteko XXIX Sarian.

Euskadiko Selekzioa ordezkatu duten igerilariak ere ugariak izan dira, bai Euskal Autonomi Erkidego barruan zein bertatik kanpo eta asko izan dira Gipuzkoako Federazioaren teknifikazio saioetara deituak izan diren taldeki-deak.



nazioarteko mailan Espainiako




**Desde 2013 hasta nuestros días, recordamos a varios nadadores del BURUNTZALDEA IKT que han pisado el "pódium" en sucesivos Campeonatos de España: Itsaso Tolosa, Iñigo Ibarburu, Leire Martín, Nahia Zudaire, Mikel Esnal, Haitz Mitxelena, Ainhoa Martín. Cabría destacarse a Nahia Zudaire, paraolímpica con la selección española en Dublin, Berlin y Barcelona, así como a Ainhoa Martín con el Equipo Nacional Infantil.**



Ver vídeo

## NAZIOARTEKO LEHIAKETARAKO SARRERA URTEA

Igeriketa mailari lotuta, 2017/2018an beste salto bat eman zuen gure taldeak Ainhoa Martín eta Nahia Zudaireren Espainiako Selekzioaren deialdiekin. Deialdi hauekin lotuta biak kontzentrazio desberdinetan aritu dira eta baita lehiaketa desberdinetan ere, esanguratsuen Nahia Zudairek 2018ko abuztuan Dublínin jokaturako Igeriketa Egokituko Europako Txapelketa delarik. Kirol mailaren garapen horretan, ugari izan dira Espainiako txapelketatan podiumean egondako aldiak, lehena 2013an Itsaso Tolosa izanik Pontevedran eta orain arteko azkena Ainhoa Martín izanik, 2018ko uztailean Madrilen. Tartean eta aldi berean, Iñigo Ibarburu, Leire Martín, Nahia Zudaire, Mikel Esnal eta Haitz Mitxelena txapelketa hauetako podiumetan ere izan dira, behin baino gehiagotan. Honekin batera, taldekide hauek Euskadiko errekor ugari ezarri dituzte, oraindik ere indarrean daudenak eta baita Espainiako zenbait errekor ere, Nahia Zudairek dituenak eta Haitz Mitxelenak eskuratutakoak.



Nahia Zudairek pertsonalki lortutako emaitzez gain, berarekin batera taldeak igeriketa egokitan egiten duen lana kanporatu ahal izan du. Bere sorreratik, betidanik, igeriketa egokitua landu duen arren, ikusgai jarri duena Nahia bera izan da, bere emaitzei esker. Hala ere, esan bezala, taldeak bere sorreratik eman dio irtenbidea behar desberdinak zituen pertsonari eta igeriketa egokitzea behar zuenari eta aurrerantzean ere horretan jarraitzeko asmo irmoa du.



Azken denboraldiko emaitza esanguratsuenei dagokionez, honakoak aipatu nahi ditugu:

### IGERIKETA EGOKITUAN

#### 2017ko IWAS World Games

Nahia Zudaire taldekidea "2017ko IWAS World Games"ean nazioarteko mailan lehiatzeko deitua izan zen. Bertan Espainiako Igeriketa Egokituko taldearekin arituko zen Nahia. Bertan 100, 200 eta 400 librean eta 50 tximeletan arituko zen leian eta bere nazioarteko estreinadian bi urre eta zilar bat eskuratu zituen.

#### 3rd International Trophy Adapted Swimming

Apirilaren 21ean eta 22ean, Nahia Zudaire taldekidea Bartzelonan izan zen "3rd International Trophy Adapted Swimming"ean parte hartzen. Bertan, urre bat eta bi zilar eskuratu zituen Nahia.

#### 32. IDM BERLIN 2018 -World Para Swim World Series

Ekainaren 7tik 10era bitartean, Nahia Zudaire taldekidea Berlin-en izan zen. Txapelketan Espainiako Selekzioarekin hartu zuen parte Nahia, igeriketa egokitan. Bertan, absolutu mailako Espainiako 3 errekor, brontze bat, S8 klaseko bi brontze eta 7 marka pertsonal lortu zituen.

### IGERIKETA ARRUNTEAN

#### Espainiako Federazioaren deialdia

Ainhoa Martín taldekidea Espainiako Federazioak deitu zuen, Espainiako Selekzioarekin Talde Nazionalarekin batera (ESP) "Erromako IV Nazioarteko Meeting" Txapelketan aritzeko.

#### Kontzentrazioa Murtzian

Apirilaren 28tik maiatzaren 5era bitartean Ainhoa Martín taldekidea Murtzian izan zen, "EQUIPO NACIONAL INFANTIL" taldearekin kontzentrazioan parte hartzen.

#### IV International Meet "Tiro a Volo Nuoto"

Ekainaren 7tik 9ra bitartean, Ainhoa Martín taldekidea Erroman izango da "IV INTERNATIONAL MEET Tiro a Volo Nuoto"an parte hartzen. Bertan 400 metro lau estiloetako marka bitan birrindu zuen Euskadiko Errekor berri bat ezarriz eta guztira 4 probatetik 3 final jokatuz eta bi marka pertsonal eginez.

Ekainaren 4tik 6ra San Cugat-eko EAZn egon zen.

